

Piropo
bilduma

2008an Ermuko Udalak, Euskara Sailaren bitartez, lehendabiziko piropo lehiaketan martxan jarri zuen. Horren helburua euskarak harreman informaletan sarbidea egitea izan zen, modu atseginez eta jatorrez euskara arlo guztietan erabiltzea, eta nola ez, maitasun kontuetan ere.

Urte hauetan zehar, asko izan dira jaso ditugun piropoak, lagun askok bidali dizkigute bere bikoteari edo maite edo desiatzen duten horri botako zizkiotenak. Orain guztiak batu eta lau haizetara zabaltzeko asmoz hona hemen zure eskura. Zure barrutik norbaiten bihotzera joateko zain.



Aberria nire arnasa, euskara nire odola, zu nire gorputza.

Ai zelako irriparra! Hura da nire iparra, gidatzen nauen izarra!

Aizkorriko egunsentia baino politagoa zara maittia.

Ama naturak gauza ederrak egin ditu eta zu zara horietan ederrena.

Ametsak errealitate bihurtzen dira nire ondoan lotan zarenean.

Animalia bat izango banintz, tximeleta izango nintzateke, zutaz maiteminduta jaiotzeko eta oso pozik hiltzeko.

Antibiotiko bezalakoa zara. Gaixorik banago eta hartzen ez badut hilko naiz.

Argia garesti ordaintzea bost axola, zu bezalako dirdira aldamenean edukita.

Arte ederrak ikasten dituztenek zure irudia aztertu beharko lukete, ez baitago zu baino ederragorik!

Atzo zure etxetik pasatzean limoia bota zenidan, azala jausi zen nire buruan eta zukua nire bihotzean.

Azal leuna ukitzean taupadak bizkortzen zaizkit eta entzuten bazaitut milaka kilometrotara dagoen mundura bidaltzen nauzu, zu baitzara nire ametsetako... liburua!

Azala horrelakoa bada nolakoa izango da mamia?

Badakizu zergatik ez den eguzkia ateratzen?

Zure begiek konpetentzia egiten diotelako.

Badaude gauza batzuk ez direnak, baina zuregan badira.

Barkatu, ba al daukazu mugikor bat esku-eskuan? Jainkoari deitzeko da aingeru bat galdu zaio eta.

Begiak erauziko nituzke zure azalaren hezetasunean murgildurik egoteagatik.

Bollikao bat bazina, kromo eta guztiz joango zintuzket.

Beti zurekin egon nahi nuke eta beti ez ni izatea. Berezia eta gu izatea, bi izatea.

Betidanik olatuek txalupak zaintzen dituen bezala, nik zainduko zaitut bizitza osoan.

Bilgarria horrelakoa bada, mamia zelako den jakin nahi dut!!!

Bizi naiz ametsetan eta amestu ezinean. Bizipen eta ametsen artean zutaz gozatzen dut orainean.

Bizitzak desio bat eskainiko balit, zu berriz ezagutzea eskatuko nioke.

Bollito! Etorri hona eta nik jarriko dut barruko erellenito!

Bost kale gurutzatu ditut, sei kale zuloarekin eta kale bakarra faltatzen zait zure bihotzera heltzeko.

Desioak izenak balu, zu bezala deituko litzateke.

Dioniri lapurra deitzen diote milioiak lapurtzeagatik, baina zu bai zu lapurra! milaka bihotz eskuratzeagatik!

Edalontzia izango banintz, pozik egongo nintzateke, horrela zure ezpainak ukituko nituzkeelako.

Edango al dugu elkarrekin bizia?

Edertasuna momentua izango balitz, zu eternitatea izango zinateke.

Egin dezagun gure mundua biak batera bizitzeko. Baina hau dena zurekin, zurekin ezkonduz gero.

Egun batean eguzkia itzaltzen bada, zuk zure irribarrearekin nire bizitza argituko duzu.

Egun euritsu bateko zazpi kolore bizidun ostadarra zara.

Egun euritsu bateko ostadarra baino politagoa zara!

Egun guztietan, zu ikustean, nire poza agertzen da.



Egun hodeitsu bateko eguzki izpi bat baino desiragarriagoa zara!

Egunari edozein gauza falta dakioke, zu izan ezik.

Egunero zu ikustean kilimak sortzen zaizkit sabelean.
Ez utzi nire ahotik irribarrea kentzen.

Egunero zure ondoan esnatzea izango litzateke oparirik onena. Baina oraingoz zurekin amestearekin konformatu beharko naiz... Baina ez kezkatu! Laster egongo gara elkarrekin.

Eguneroko itsaso zakarrean zu beti uharte!

Eguzkia desagertu dadila!!! Zuk bakarrik argitzen baitidazu bizitza.

Emazkidazu eguzkitako betaurrekoak. Izan ere, eguzkiak baino gehiago itsutzen nauzu!

Ene maitia, eguzki lorea, nire pentsamenduen jabea, zu zara bete-betean harrapatu nauen sarea.

Erlea izango banintz, zu aukeratuko zintuzket egunero polinizatzeko,

Erlojua pikutara botako dut... ez baitut ikusten zu musukatzeko ordua.

Eta gero esango dute loreek ez dakitela oinez!

Eta gure amak esaten du monumentuak ez direla mugitzen!

Ez al zaude nekatuta? nire buruan bueltaka zabiltza egun osoan.

Ez angula eta ez lenteja, onena zure almeja!

Ez aspirina, ez aktimelik zure begiradaren magia izango duenik!

Ez da inporta eguzkia desagertzen bada, zure begien distirak dena argitzen dit eta!

Ez dago munduan zu baino gizon hoberik!

Ez dago munduan zure ezpainak baino goxoki hoberik. Zaporez aldatzen badakizu eta atxikipena sortarazi didazu. Zure muxuak behar ditut.

Ez dago munduan zure ezpainak baino goxoki hoberik!

Ez dut exageratu nahi, baina hiltzeko prest nago, egia bada zure musuek hil egiten dutela .

Ez nuen uste begirada batek bizitza oso bat poztu zezakeenik.

Ez zuretzat ez denentzat, munduko politena zara niretzat.

unilap

Ezagutu zintudan momentutik nire bizitzak norabidea dauka. Utziko baninduzu nire bizitza galduta egongo litzateke!

Fiu-fiu zure bi begien ispilu, fiu-fiu!

Gorputza makila, ahoa goxokia, mingaina txiklea.
Txupatxusa al zara?

Goxo-goxo elkarrekin, zure maitasunaren besoetan, gustora, epeletan.

Greziako kanpo zorra baino handiagoa zara!

Gutun bat bidaltzen dizudanean ez bota zaborrera, gogoratu tinta nire odola dela eta papera nire bihotza.

Hain polita zara ze logela argitzen duzun zurekin egoten naizenean eta zure begiradaz bihotza.

Hainbeste bihurgune eta nik freno barik!

Hainbeste haragi eta nik hortzik gabe!



Haizea izatea gustatuko litzaidake, zure gorputza laztantzeko, eguneko ordu guztietan zu ukitzeko, eta zugandik inoiz ez urruntzeko.

Hamaika ikusteko jaioak gara, baina politena zu izan zara!

Hamalau urte daramatzagu, baina, zuri esker, hamalau ordu izan direlakoan nago.

Harakina izango banintz, goitik behera etekina aterako nizuke!

Hi bonbero. Zer hago ero? Itzali ezean, jartzen nauzu bero!

Hitzak soberan daude zugar sentitzen dudana azaldu ezin dutelako. Bi hitzetan soilik esan dezaket: Maite zaitut.

Hiztegi bat erosi behar dut, ikusi zintudanetik hitzik gabe geratu naiz eta!

Hiztegian artearen esanahia topatuz gero, zure argazkia agertzen da, a zelako artelan perfektua zurea!!!

Hiztegian zoriona hitzaren sinonimo bat falta da, zu.

Hori bai hori mutil katxarroa! Ikaragarria, ederra benetan; eta irribarre ederrenaren jabea!

Ilargia izango bazina, egunez egingo nuke lo zu gauzez ikusteko.

Ilargiak begiratu ninduen eta orduan konturatu nintzen zugatik sentitzen nuena maitasuna zela.

Ireki begiak itsasoa entzun nahi dut eta.

Itsasargia bazina, enbatak astinduta itsasoan noraezean dabilen potina izan nahiko nuke.

Itsasargiak ere krisian daude. Zure begien distirak itsasontzi guztiak gidatzen ditu maitea!!

Itsasoa harkaibetan hiltzen da. Eta ni, zure ahoa muxukatzearren hilko nintzateke.

Iturria nahi nuke izan, edatera zoazela zure ezpainak laztantzeko.

Izar bat izan nahi nuke, beti zu ikusteko.

Izarra izan nahi nuke gauak zure ondoan pasatzeko, zure irribarrea argitzeko, zure pentsamenduan betirako egoteko.

Jaungoikoak 7 egunetan mundua sortu zuela diote, baina ez dut uste hala izan zenik; egun bakarra erabili zuela uste dut nik, beste 6 egunak zu sortzen erabili behar izan zituelako.

Karamelua izan nahi nuke, zure ahoan desegiteko.

Karamelua izatea gustatuko litzaidake zure ezpainetan urtutzeko.

Kotxea izango bazina, Ibilgailuen Azterketa Teknikoa pasatuko nizuke debalde!

Kpmz: kriston pila maite zaitut.

Ibgmz inor baino gehiago maite zaitut.

Amz asko maite zaitut.

Argi utziko dizut maiteminduta nago.

Krisi garaian, urrezko koxkorra baino gehiago balio duzu.

Kuleroa izatea gustatuko litzaidake, zure ipurdi biribil-biribila ikusteko.

Lapurtzea txarra dela esaten dute. Nik inoiz ez nuke egingo; Baina zure musu bat gustura nuke lapurtuko.

Larunbatean ilargira bidaltzen nauzu, eguzkira egunero.

Luma izango banintz, eta zure bihotza tintontzi bat, nire zainen odolekin “Maite zaitut” idatziko nuke.

Lupa ederra izan nahi nuke zuri hurbiletik begiratzeko.

Lurretik desagertzen bazara, hil zorian lagako nindukezu.

Maitemintzea erotzea dela esaten dute askok. Ni guztiz erotuta egongo naiz, zutaz guztiz maiteminduta bainago.

Maitasun loreak, zuretzako maitxia!

Maitasuna
amodioA
klimak
Tristura
montEntuak
poZa
eztAbaidak
irrlbarrea
berdinTasuna
lagUntasuna
iTsua

Maitasuna sua, hire bihotz eta begien goxoki goxua!

Maite zaitudalako behar zaitut, ez behar zaitudalako maite zaitut.

Malkoa izatea gustatuko litzaidake... zure begietan jaiotzeko, zure masailean bizitzeko eta zure ezpainenetan hiltzeko.

Margolaria izango ahal naiz zure edertasuna pintatzeko

Marrubizko ezpainak, txokolatezko begiak eta eztiko azala; osagai hauekin zure amak ez zuen bada egin pastel makala.

Mesedez ez hurbildu Antartidara, urtu egingo da eta!

Mesedez, ez esan nor zaren, nongoa zaren, zer zaren, ezta zer nahi duzun, mesedez maitatua sentiarazi nazazu!

Mila milioi izar daude zeruan, eta gauero zure aurpegia ikusten dut horietako bakoitzean.

Min asko egin zenuen? Noiz? Zerutik jausi zinenean! Zer? Zu bezalako neska/mutila aingeru bat izan behar da!

Mundu osorako norbait zara, baina niretzat mundu osoa zara.

Mundua mukizapia balitz, zu zinateke nire mukirik gustukoena.

Nahiago dut bizitzarentzat norbait izatea baino norbaitentzat bizia izatea.

Nahiz eta izarrak zerutik jaitsi eta arrainak uretatik kanpo bizi... betirako maite egingo zaitut.

Nahiz eta mila milioi izar egon zeruan, gauetan, zure aurpegia ikusten dut izar bakoitzean.

National Geographiceko zuzendariak ezagutuko bazintu, munduko zortzigarren marabilla izendatuko zintuzke.

Neguko egun ilunak argitzen dituen pertsona zara.

Neguko eguzkiaren izpiak baino hobe zara.

Neptuno dirudizu, zure gorputza burbuletatik ateratzen denean.

Neska guztiak zu bezain politak izango balira,
Photoshopa ez litzateke existituko.

Neskatxa ibili gerizpetik! bonboiak eguzkitan urtu egiten dira eta.

Ni atea nintzen, baina zu bezalako jainkosa ezagututa, alajaina!!! Jadanik, sinestun naiz.

Ni eguzkia eta zu ilargia. Biok batera elkartzean, ilunabarrean, amodioaren kolorea sortzea lortzen dugu: kolore gorria; gure arteko pasioaren aztarna. Eklipsea jada.

Ni naiz erlea eta zu zara lorea, egingo al dugu biok goxo-goxo ezia?

Ni su; zu gar. Ni ta zu, su ta gar.

Ni yonkia naiz, zu nire pikoa. Zu ikusterakoan, heroina izar bat dirudi, baina zu ilargia!

Ni pintorerik onena naiz eta zu musarik handiena. Zuri ilargia emango dizut eta musu bat, orain bai zuretzat ilargia.

Gure amona lapikoari botatzen dion okela baino goxoago zaude.

Nire barruko dragoiak sua botatzen du ikusten zaitudan bakoitzean.

Nire begiek sekula ikusi duten ikuskizunik ahaztezinena zara!

Nire beldur guztiak zure maitasunak uxatu ditu. Amets guztiak errealitate bilakatu dituzu.

Nire bidea argitzen duen izarra zara.

Nire bihotza eta gorputza zutaz blai daude.

Nire bihotza odolatan tantaka ari da eta bakarrik senda daiteke zeure ahoko musu batekin.

Nire bizitza ilundu da, zure irribarrea joan delako nire ondotik.

Nire bizitzako bidean zu zara lehena, oraina eta geroa.

Nire bizitzako karreran zu zara motor handiena.

Nire bost zentzumenak emango nituzke zure ondoan egotegatik!

Nire gorputzetik gehien gustatzen zaidan atala begiak dira, baina bakarrik zureak isla egiten dituztenean.

Nire maitasuna eta pasioa mantentzen duen erregaia zara.

Nola liteke zure besoetan preso egoteak ni aske sentiaraztea.

Non dago hipnotizatu nauen sorgina? Ikusi zaitudanetik nire ezpaineak zeureak besterik ez baitute ukitu nahi.

Nor izango zen jainkoa, zuri unibertsoa oparitzeko.

Odola izan nahiko nuke, zure gorputzean zehar ibili ahal izateko.

Ona da natila, ona da suflea, baina zu zeu zara nahi dudana postrea.

Ona da txokolatea, baita pastelak ere, baina zu zeu zara nahiago dudana gozokia.

Opari bat eman behar banizu, ispilu bat emango nizuke, zeren eta, zu eta gero, politena zure erreflexua da.

Oraindik ez da sortu zu deskribatzeko hitzik.

Ordulariko orratz txikia izatea nahiko nuke orduro zurekin elkartzeko.

Ortuko barazkirik fresko, xamur eta zaporetsuena zara.

Ostadarraren zortzigarren kolorea zara.

Parisen Eiffel Torrea, Egipton Piramideak, Erroman Koliseoa eta nire bihotzean, zu zeu laztana!

Pijama izan nahi nuke, gauero zure ondoan lo egiteko.

Pirata nahi nuke izan, hankatarrean duzun altxorra lortzeko.

Piroporik ederrenaren bila, zure begiak beti bururatzen zaizkit!
Betetzen nauzu laztana!

Piroporik onena, sabel barruan daramadan umea da. Mila esker laztana.

Planeta berotzen ari dela? Noski, munduko izeberg guztiak urtzen dira zu ikustean.

Polizari deitu, polizari deitu azkar! Mutil horrek bihotza lapurtu dit!

Seguru zure ama gozogilea dela, zu bezalako bonboi bat egiteko.

Tabakozalea naiz, zu nire nikotina zara. Behar zaitut

Traktore margotu berri bat baino ederragoa zara.

Trena izango banintz, zure gorputzeko atal guztietan
egingo nuke parada!

Txupatxusa izan nahiko nuke zure ezpainen artean egoteko.

Udako eguzkiak baino gehiago berotzen nauzu maitea!

Ura izatea gustatuko litzaidake, egunero zure ezpain gozoak laztantzeko.

Xuxurlatzen didazunean, zure hatsaren erritmoa nire bihotzaren taupada bihurtzen da.

Ze plan daukazu, datozen urteetarako?

Zein aurreratua dagoen zientzia, bonboiak ere ibili egiten baitira.

Zein da zure ezpaineak duten pozoia, musu batekin bizitza kentzen didana.

Zelako ipurdia; zelako begiak; zelako irribarrea; baina onena... ezin dut hautatu. Zu zara onena.

Zenbat maite zaitudan jakin dezazun, konta itzazu zeruko izarrek bost aldiz.

Zenbatu zeruan dauden izar guztiak eta jakingo duzu maite zaitudan guztia

Zer da poza? Egunero zure irribarrea ikustea, zure begirada nabaritzea eta zure
ezpainak dastatzea.

Zergatik da itsasoa gazia? Zuk daukazulako gozotasun guztia.

Zertarako jausi lurrera, hodeietan zurekin banago?

Zerua lainoz beteta dago, baina zure irribarrearekin ortzadarra atera duzu.

Zerutik aingeru bat jaitsi zen zure figura margotzeko, baina ez zuen margorik
aurkitu zu margotzeko.

Zu aurrean izanda, zertarako mediku edo botikak?

Zu bai zarela katxarrua, eta ez gure amak sukaldean dauzkanak!

Zu bai zu artelana! Eta ez Miguel Angelek Erroman eginiko "*Kapilla Sixtina*"!

Zu barik, gorputza hotz eta bihotza hutsik!

Zu bezalako bonboiak eguzkitan urtzen dira.

Zu esnea eta ni kafea, nahi al duzu egitea kafesnea?

Zu eta ni, ni eta zu, beste guztiak itxaron ahal du.

Zu ezagutu arte, ez nuen uste irribarre batek bizitza oso bat hornitu zezakeenik!

Zu gabe esnatzeari beldur diot. Babesleku perfektua zara. Zure bihotzaren taupadek bidea erakusten didate. Gauero izarrei begiratu eta nire ondoan jarrai dezazun eskatzen diet.

Zu ilgora, ni ilbehera eta biok batera ilargi betea.

Zu kafe eta ni esne, biak batera kafesne.

Zu kaia zara, eta nire txalupa galduari babesa ematen diozu!

Zu lorea eta ni erlea izatea gustatuko litzaidake egunero zu polinizatzeko.

Zu *Luis XVI.a*, ni *Maria Antonieta*. Goazen biok batera gillotinara, amodioz hiltzera.

Zu maitatzea debekaturik izango balitz... ez nuke izango Jainkoaren barkamenik.

Zu mendian dantzan, ni sumendian bezala.



Zu Migel Angelen *David* baino perfektuagoa zara.

Zu munduratu zintuzten egun berean sortu zen unibertsoa ere.

Zu nirekin, ni zurekin, itsasoko arrainak bihurrienak gara.

Zu zara aldaketa klimatikoaren arrazoia artikloan!

Zu zara inprimaturiko argazkirik politena.

Zu zarelako nire ponpodun umea, ze polita zatoz zure
alkondara berdeaz!

Zu zara nire bidean argitzen duen izarra.


Zu zara nire bihotzaren giltza. Zu. Zu zara nire bihotzaren jabe!

Zu zara nire bihotzeko kaskarina.

Zu zara nire bihotzean sartuta dagoen arantza eta arantza hori kentzen denean
hiltzeko zorian nago, zu zarelako nire bizia.

Zu zara nire buruan dabilen gaueko ibiltaria.

Zu zara nire seigarren entzumena aktibatzen duen efektua.



Zuk duzuna? Beste inork ez duena.

Zure begi urdinetan murgiltzean, itsasoratzeko haize gozoa sentitzen dut nire barrenean.

Zure ahoaren xuxurla leuna, nire sama laztantzeko era, zure xera sutsuak, nire ilea musukatzeko era, hauexek dira bizitza ematen didatenak.

Zure alboan pertsona naiz eta bihotza azkar joaten zait. Baina, alde egiten dudanean pertsona ez naiz eta bihotza gelditzen zait

Zure ama derrigor zen gozogilea, zu bezalako bonboi gozo baten egilea.

Zure ama goxogilea izan zen nonbait, zu bezalako opiltxoia egiteko.

Zure ama pastelera izango da, zu bezalako bonboi bat ez duelako edonork egiten.

Zure aurpegia begiratzen dudanean, eta zure begi handiak ikusten ditudanean, ilargi balira bezala iruditzen zaizkit. Horregatik, gauero itxaroten dut, ilargiaren argia ikusi arte zu berriro ikusteko.

Zure azala, berotzeko goxoena den izara!!

Zure begi berdeak! horixe da bertigoa!

Zure begi grisek itsasoaren bitsa dirudite, zure ezpain gorriek goxokien azukrea.
Baina gehien gustuko dudana zuk sortzen duzun alaitasuna da.

Zure begiak dira gaua argitzen didaten izarrak.

Zure begiekin, munduko farola guztiak. Jai!!!

Zure begiak dira zeruko izar politenak, horregatik zu zara nire munduko gauzarik desiratuena.

Zure begiak handiak; zure ahoa gosea; eta nire bihotza zurea.

Zure begiak ikusteak nire arima poztu du. Zurekin egoteak nire bihotza poztu du.
Nirekin geratzen bazara, maitasuna eskaintzen dizut, baina alde egiten baduzu, nire barruko osoa hiltzen duzu.

Zure begiak nire bihotza argitzen duten bi bonbilla dira.

Zure begiak une batean begiratu nituen, baina nire bihotza betirako bizkortu zen.

Zure begiak, itsasoak bezain sakonak dira, ume baten irribarrea bezain alaiak eta zintzoak. Ez litzaidake inportako itsasoan itotzea edo egun osoan umeak zaintzea, zu beti gogoan izateko.

Zure begietara hurbiltzen naiz eta bizitzara salto egiten dut.

Zure begirada eguzkiaren dirdira baino argitsuagoa da!

Zure begirada nire bidea; zure usaina nire arnasa, zure taupadak nire entzumena;
zure ahoa nire zaporea; zure besoen laztanak eta besarkadak nire amets bakarra.

Zure begirada sua da eta nire gorputza argizaria.

Zure begiradapean egoteak hilkorra naizela ahaztarazten dit.

Zure begiradarekin, ez dut behar bestelako erregairik.

Zure bihotzaren taupada da nire bizitzaren musika!

Zure desioak nire egin nahiak!

Zure ezpainak klabelinak, zure azala zitoria, zure adatsa urre horia eta zure begiak
nire atentzio guztia.

Zure ezpainetako perla, zure izaeraren azaleratzea besterik ez da.

Zure ezpainak azukre, zure besoak esti, zure bularra esne kondentsatu, zure ipurdia
txokolate, eskerrak diabetikoa ez naizen!

Zure ezpainetako perla, zure izaeraren azaleratzea besterik ez da.

Zure gorputza kartzela balitz, nik zigorra gustura beteko nuke!

Zure gorputza kartzela balitz, kondena nazatela!!!

Zure gorputza ukitzen badut , ez ditut berriro nire eskuak garbituko.

Zure gorputzean tatuatuta dituzun izarrek nire bizitzari argia ematen diote.

Zure irribarre bakoitzean nire mundua pizten da. Zu zara nire poz guztien argia, zuri esker egunero eguzkia ateratzen da nire bihotzean.

Zure irribarre batengatik zezenen aurrean dantza egingo nuke.

Zure izara izan nahi nuke, gauero zurekin besarkatuta egoteko.

Zure galtzontziloak izatea gustatuko litzaidake, beti zure ipurdia ukitzeko.

Zure laztanak, nire bihotzetik inoiz joango ez diren
aztarnak!

Zure mingaina izan nahiko nuke, egunero zure ezpaineekin jokatu ahal izateko.

Zure musu baten truke dena emango nuke, baina dena emango nizuke musutruk.

Zure musuak drogak baino adiktiboak dira.

Zure odolarik sekula irten nahi ez duen birusa izan nahi nuke.

Zure ondoan egoteagatik futbol finala galduko nuke.

Zure betileen mugimenduarekin marenato bat sor dezakezu maitea.

Zure poza izan nahi nuke, beti zure ahoan egoteko.

Telefonoa lagako didazu? Nire amari esan nahi diot nire bizitzako mutila aurkitu dudala.

Zure txispak pizten du bizitzaren sua.

Zure zoriontasuna lortzearen mundu osoari bira emango nioke.

Zurekin 24 orduko eguna motza egiten zait.

Zurekin egoten naizenean eta zure irribarre polita ikusten dudana bakoitzean bihotz taupadak azkartzen zaizkit pozagatik.

Zurekin ez zuten torneo konbentzional bat erabili, CNC-ko programa perfektua baizik.

A romantic scene of a couple in silhouette jumping joyfully on a beach at sunset. The woman is in mid-air, her arms outstretched, while the man stands behind her, also jumping. The background is a warm, golden sunset over the ocean.

Zure musu baten truke dena emango nuke, baina dena emango nizuke musutruk.

...Zure arnasaren beroa, nire azalaren hotzikara
gozoa...

Argia zara nire gauetan.

Arrazoi bat zoriontsu izateko, zu.

Atzo bonboi kaxa bat oparitu zidaten. Gaur bat falta zitzaidan. Zeinek eman dizu
baimena kaxatik irteteko? Zu zinan bonboi goxoena eta!

Bakarrik pentsatzen dut zurekin berriro egotea.

Debekatua egongo bazinen, zurekin egotearren jadanik kartzelan egongo
nintzateke.

Denbora aurrera doa, baina zure edertasuna iraunkor jarraitzen du.

Edertasunaren bila eta zu aurkitu zintudan.

Ez dago utopia goxoagorik zure gorputzaren zirrarak nire azala laztantzen duenean baino!

Gatzaga izena ipini behar zizuten zure saleroagatik.

Gaur lokartuta egon beharko zinateke, nire ametsetan murgilduta eman duzu gau osoa eta!

Iluntasunean argitzen nauen pertsona zara

Itsu geldituko banintz ere, zure distira ikusiko nuke.

Katu izango banintz zazpi bizitzak zurekin pasatuko nituzke.

Landareek eguzkia behar duten bezala, nik, zure ondoan egoteak sortzen didan berotasuna behar dut!

Loreak mendian, perretxikoak basoan eta zu bezalako mutila, nire bihotzean

Maitasuna sekretua bada eta zu sentitzea pekatua, ihes gaitezen infernura laztana

Margo darion hegalaria

Poz-emaile ta zoragarri

Negu elurtsu honetan elur-matazarik dotoreena, zu zeu!

Nere zorionaren sekretua zu.

Eguzkia distiratsua? Zu bai!!

Ni bezalako trufalari batendako trufa eder bat zara zu.

Ni naiz eguzkia, zu zara izpia, . ni naiz zelaia zu zara lorea: zer egingo luke eguzkiak izpirik gabe? Eta zelaiak lorerik gabe? Eta nik zu gabe?

Perfekzioa existitzen ez zelakoan nengoen, zu ezagutu zintudan arte.

Pottolo! Hirekin jan bai, baina lo...

Printzesa sentiaraztea ez da mila soineko izatea, koroa buruan izatea edo gaztelu eder eta handi batean bizitzea; zure ondoan egunero esnatzea da ni printzesa sentiarazten nauena.

Trufa bat baino goxoagoa zara.

Ura izango bazina, zure besoetan itoko nintzateke.

Zer egingo luke eguzkiak izpirik gabe? Eta zelaiak lorerik gabe? Eta nik zu gabe?

Zoriontasuna eman dit bakarrik zu zarela.

zu nire goxokirik gustukoena,

Zu zara nire zoriona .

Zu, nire azukre koxkorra, hain zaitut maite, inoiz ez zintudala bakarrik utziko,

Zure begiak ikustearren, nireak emango nituzke; baina ezingo nituzke zureak ikusi.
Orduan gauza bat esango dizut, nahiago besteek zure begirada disfrutatzea, nik edo
inork ez ikustea baino.

Zure begiak ni bainatzen naizen itsasoak dira.


Zure begiak, zure sudurra , zure masaiak eta zure irribarrea, zilborrekin batera dira
niretzat, munduko zazpi mirariak .

Zure begien distira, nire bidearen argia!

Zure begiradek mundu guztia maitemintzen dute,

Zure bezalako software onarekin, informatikaria izango banintz langabe egongo
nintzateke.

Zure ezpain gozoei zerbait falta zaie, nireak ote?

A soft-focus background image of a couple holding hands on a beach. The woman is on the left, with long blonde hair, and the man is on the right, with dark hair. They are both looking down at their joined hands. The background shows a sandy beach and a clear blue sky.

Zure muxuak nire drogarik gogokoenak dira.

Zurekin egotea zoriontasun handiena da.

Zurekin nagoenetik gizontzen ari naiz. Hain goxoa zara!

Zu zara nik behar dudana guztia

Zuretzat piropo baten bila, eta ezin!!! Jadanik zu piropo bat baitzara.

Zuri begiratzea mundura leiho bat zabaltzea da.

Egia esango dizut, ez dituzu ez begi lilugarrik, ez ile harrigarrik, baina zurekin egotean nire ezpainak luzatu, begiak itxi eta pozik jartzen naiz, zure hitz batek eguna argitzen baitit.

Egunsenti guztiak zu bezain ederrak balira, goiz esnatuko nintzateke egunero.

Zure ezpainek mundu guztiari barrea eragiten diote... maite zaitut

Zure malkoetan murgiltzea nahiko nuke, zure irribarrean irristatuko nintzateke, zu baitzara nire arnasa, nire babesa, nire bizitzako gatza eta piperra.